



DOKTORE GAZTEENTZAKO "JOSÉ CASTILLEJO" **LAGUNTZAK, ATZERRIAN EGONALDIAK EGITEKO – 2025** **(HKKM)**

Hezkuntza, Unibertsitateen Ministerioak deia egin du 260 laguntza emateko, xedea izanik irakasle eta/edo ikertzaileek egonaldiak egitea goi mailako hezkuntzako eta ikerketako atzerriko zentroetan.

"José Castillejo" modalitatearen ezaugarriak

Laguntza mota honek helburu dauka doktore gazteen mugikortasuna bultzatzea eta sustatzea, irakasle eta/edo ikertzaile karreraren hasiberriak diren doktoreena, hain zuzen ere.

Laguntzen ezaugarriak eta iraupena:

Egonaldirako, irakasle edo ikertzaileak aldatu egin beharko du jardun akademikoko atxikipen zentroa, bai eta ohiko bizilekua ere. Salbuespena izango dira % 65eko edo gorako desgaitasun maila duten hautagaiak. Izan ere, horrelakoetan ez da nahitaezkoa izango atzerrira joatea eta zentroa Espainiakoan izan daiteke; hala ere, aldatu egin beharko dute ohiko bizilekua.

Egonaldiaren iraupena 3 hilabetetik 6 hilabetera bitartekoa izango da: egonaldia jarraian egin behar da atzerriko zentroan jardun akademikoa eta zientifikoa dagoen aldiaren barruan.

Egonaldiak 2027ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduraren 31ra bitartean egin behar dira edo aldi horretan egindakoak izan behar dira.

Helburuko zentroak:

Egonaldia helburuko zentro bakarrean egiteko eskatuko da.

Atzerriko zentroak izango dira (aparteko kasuetan Espainiakoak izan daitezke), eta onuradunek bertan egingo dute proiektua egonaldiak dirauen bitartean. Egonaldietarako zentroak izan daitezke unibertsitateak eta ikerketako eginkizunak esleituta dituzten zentroak, baina, betiere, proiektuaren eremuan izen handia izan behar dute irakaskuntzan eta ikerketan.

Onuradunak:

Honakoak dira baldintzak:

- a. **Doktore titulua:** Doktore titulua eskuratuta izatea 2014ko urtarrilaren 1az geroztik. Karrerako funtzionarioen kasuan, berdin dio noiz lortutakoa den doktore titulua, beti egin behar baitute eskaria A motako laguntzarako (senior ikertzaileak).
- b. **UPV/EHUrekin funtzionario lotura izatea edo lan kontratua:** Irakasle-ikertzaileen taldean bitarteko funtzionarioaren izendapena izatea edo lan kontratua, horretarako beharrezkoa izanik doktore titulua izatea, eta bermatuta egotea kontratuaren amaiera data egonaldia amaitu ondorengoa dela. Horrez gain,



jardunean egon behar da arduraldi osoan.

Bitarteko langileek esku har dezakete, salbuespen gisa, haien kontratuan bi egoera hauetako bat jasotzen denean:

- a. Lanpostua erreserbatzeko eskubidea duen langile bat ordezkatzeara.
- b. Aldi baterako lanpostu batean egotea postu hori behin betiko betetzeko hautaketa edo promozio prozesuan.
- c. **Egonaldiak atzerrian:** Azken 4 urteotan atzerrian egonaldirik egin ez izana, guztira 6 hilabetetik gora. Kontuan hartuko dira doktoregoa egin ondoren atzerrian egin diren hilabetetik gorako egonaldi guztiak, nahiz eta egonaldirako laguntzarik, kontraturik edo antzekorik jaso izan ez.
- d. **Helburuko herrialdea:** Herrialdea ezin izango da bat etorri onuradunaren herritartasunarekin, kasu honetan izan ezik: egoitza legala Espainian izatea eta gutxien dela 2 urtez izatea lotura iraunkorra UPV/EHUrekin.

OHAR GARRANTZITSUA: UPV/EHUK ezingo du balioztatu eskaria **ez** baldin baditu betetzen baldintza guztiak.

Eskariak aurkezteko epea:

2026ko urtarrilaren 29tik otsailaren 18ra bitartean, 14:00ak arte.

Eskariak egiteko prozedura:

Eskaria lotura honen bidez egin behar dira:

<https://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=2424>

Aplikazioan dauden eremu guztiak bete behar dira eskaria baieztatu aurretik. **Eskari orria ezin izango da zuzendu:** ezingo dira aldatu, inola ere ez, datuak, eskatutako egonaldien datak, eta eskaria betetzean emandako gainerako informazioa.

Horrez gain, honako agiriak aurkeztu behar dira:

- a. Atzerriko zentroaren gutuna, adierazten duena eskari egilearen egonaldia onartu eta ontzat ematen duela.
- b. Doktore tituluaren fotokopia, edo, halakorik ezean, titulua eskuratzeko eskariaren ziurtagiria.
- c. Egin beharreko proiektuaren memoria, inprimaki arautuan.
- d. UPV/EHUrekiko kontratuaren kopia eskatzaileek lan kontratua duten kasu guztietan, hau da, funtzionario loturarik ez dutenean.

Kontratua aldi baterako denean, lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesuan zehar, lanpostu horretarako deialdia egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira kontratuarekin batera.

OHAR GARRANTZITSUA: UPV/EHUn bete beharreko prozedura:

UPV/EHUKo langileek, eskaria aurkeztean, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar dute dokumentazio guztia (eskari orria, atzerriko zentroaren gutuna, doktore titulua eta memoria); horrez gain, **agiri bat erantsi beharko dute egiaztatzeko hasi dituztela izapideak beharrezko baimena eskuratzeko.**



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN

MECDn argibideetarako:

jose.castillejo@universidades.gob.es
movilidad.organismos@ciencia.gob.es

UPV/EHUrekiko harremana:

pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Informazio gehiagorako:

<https://www.ciencia.gob.es/Convocatorias/2025/JoseCastillejo2025.html>